

Asteburuan, Mediku-Etxe parean trafiko seinale eta semaforodun zutoina hautsi eta bota dute. Aurreko asteburuan ere semaforo eta seinale berdinek kalteak izan zituzten eta atzerago joanda, irailean, matrikulak eskaneatzen zituzten aparatuak lehenik erasotu eta egun batzuetara lapurtu zituzten.

Puntu honetara iritsita, **eraso hauek guztiak salatu nahi ditugu eta herritar guztiei ardura eta errespetua eskatzen dizkiegu**, bai elkarren arteko harremanetan, baita eztabaida politiko-publikoen aurrean ere.

Zalantzarik ez da **eraso hauen oinarrian Santa Fe kalearen zati batean egin diren trafiko arauen aldaketak** daudela, nahiz eta gaur arte erantzuleek ez duten halakorik publikoki adierazi. Garbi dugu oinezkoak erdigunean jartzearen eta kotxeen presentzia murriztearen kontra daudenen erasoak izan dela.

Zaldibiako udal gobernuan gaudenok, **herritar askoren nahiari eta gure ezker ikuspegiari zintzo, argi adierazi genuen plaza inguruaren oinezkotzearen alde** lan egingo genuela eta **helburu horretan irmo jarraituko dugu**. Herri hezitzaile eta zaintzailearen baloreetan sakontzen segituko dugu, herritar guztientzako bizigarriago eta seguruagoa den Zaldibia eraikitzen. Onura kolektiboa pribilejio indibidualen gainetik jarriko dugu beti.

Horregatik, **eraso hauek amaitzea eskatzen dugu, iritziak emateko ez dagoelako indarkeriara jo beharrik**. Herritar guztiei giza-legez jokatzeko eta elkarbizitzaren oinarriak defendatzeko deia egiten diegu.